



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko azaroaren 18a

137. ZK.

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru-lege proiektuak:**

—10-25/LEY-00009. 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua. Osoko zuzenketak (2. or.).

B SAILA:

**Foru-lege proposamenak:**

—11-25/PRO-00016. Foru-lege proposamena, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maia-tzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

E SAILA:

**Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-25/DEC-00048. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Haurren Eskubideen Mundu Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsi du (16. or.).

---

**A saila:**  
**FORU-LEGE PROIEKTUAK**

---

## **10-25/LEY-00009. 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua**

### **OSOKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 149. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa. Foru-lege proiektu hori 2025eko azaroaren 5eko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **1. ZUZENKETA**

#### **UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Osoko zuzenketa, 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen proiektuari aurkeztua.

Aurrekontu orokorrak funtsezko mekanismoa dira Foru Administrazioaren baliabide ekonomikoen esleipena definitzeko, eta baliabide horiek, bidena-bar, zerga-politika jakin batean oinarritzen dira.

Horregatik, haien baliabideak banatzeko irizpideek baldintzatzen dituzte foru-komunitatearen hazkunde ekonomikoa eta lehiakortasuna. Era berean, islatu behar dute azpiegitura berriak sortu eta hedatzearen eta daudenak hobetu eta kontserbatzearen aldeko apustua.

Gainera, aurrekontua ongi diseinatzea funtsezkoa izan behar da herritarrei oinarritzko zerbitzuak hobeto ematen zaizkiela bermatzeko, bai eta herritarren eskubideak betetzen direla ziurtatzeko ere, eskubide horiek lortu ahal izateko ardura ematen baitie botere publikoei ordenamendu juridikoak.

Zoritzarrez, 2026ko ekitaldirako aurrekontu-proiektuak ez du ziurtatzen arestian azaldu ditugun helburuak beteko direnik; eta hori horrela da, lehenik, aurreko ekitaldietako aurrekontuekin kati-

gatuta daudelako, eta haiek familia-errenten eta Nafarroako enpresa-sarearen ahalmen ekonomikoa neurritz kanpo oztopatzen duen zerga-politika batean oinarritu direlako. Hainbat urtez iraun duen dinamika horren ondorioz, foru-komunitateak lehiakortasuna galdu du, neurketa objektibo eta independenteetan islatuta agertzen den moduan.

Bestalde, aurreko ekitaldietako aurrekontuen lanketaren eta gauzatzearen bilakaerak gastu-maila historikoak islatzen ditu, eta, aldi berean, oinarritzko zerbitzu-prestazioak –demagun, osasungintzakoak edo etxebizitzakoak– foru-komunitatean ezezagunak ziren arreta-gabeziak azaltzen ditu.

Egiaztatzen ahal den beste kontraesan negargarri bat da azpiegituretan egindako inbertsio-ahalegin kaskarra ez datorrela bat, arestian esan dugun bezala, gehiegizko presio fiskalaren segizioan letorkeen gastu erabilgarriaren gero eta zenbateko handiagoekin.

Nafarroako Gobernuaren eta EH Bildu alderdi abertzalearen ordezkariak, aurrekontuak diseinatu eta onesteko asmoa iragartzen dutenean, haien izaera hedakorra nabarmendu besterik ez dute egiten, hau da, aurrekontu orokorren bertute nagusia dela gero eta gastu publiko handiagoa dagoela eskueran; eta ez dute auzitan jartzen, ez eta inolako azterketarik erakusten ere, gastu-zenbateko hori bat ote datorren haren eraginkortasunarekin, bete behar dituen helburuetarako.

Gobernuak onetsi eta Ganbera honetara bidali duen aurrekontu-proiektuak kontu publikoen aurreikuspena egin baino askoz lehenago adostutako akordio aurreikusgarri bati men egiten dio soil-soilik. Alderdi Sozialista erradikalizatu baten eta EH Bildu ezker abertzalearen alderdiaren arteko aliantza hori aldeztetikoa da, eta Nafarroako Gobernuak hartu dituen erabaki nagusiak baldintzatzen ditu. Erabaki horiek Parlamentuan berretsi egin dira legegintzako dekretu, proiektu edo foru-legeen proposamen modura.

EH Bildu alderdi independentistaren eragina gero eta erabakigarriagoa da ekitaldi bakoitzean Nafarroako Aurrekontu Orokorrek lantzeko orduan. Egitate hori agerian geratzen da, besterik gabe, egiaztatzen denean azken ekitaldietako aldaketa izan dela igarotzea proiektua aldeztu aurretik adostutako aurrekontu-zuzenketa bidez bideratzen, orain lege-proiektua osatzen duten aurrekontu-partiden jatorrizko definizioan zuzen-zuzenean parte hartuz.

Aurrekontu-mekanismoaren definizioan EH Bildu duen erabaki-ahalmen erabakigarri hori oso negatiboa da foru-komunitatearen erronka eta desafioen kudeaketari dagokionez; izan ere, aipatu alderdia Nafarroako aurrerapen-proiektu nagusiak blokeatzeagatik eta haiekiko areriotasunagatik nabarmendu da: iraganen autobiak edo azpiegitura hidraulikoak ziren, esate baterako Nafarroako ubidea, eta, gaur egun, tren-arloan abiadura handia eta ekonomia produktiboa sorrarazten duten beste azpiegitura batzuk bultzatzeko du ezkortasuna.

Azkenik eta hau ere garrantzitsua da aurrekontu orokorren proiektu honen izapidetze-uneari dagokionez, nabarmentzekoa da proiektuaren diseinua eta hura babesten duten alderdi politikoen arteko aurretiazko akordioa suertatu ere suertatzen direla susmo-giroan eta balizko ustelkeria-giroan, eta horrek, lehenik eta behin Alderdi Sozialista zikintzen duela, baina baita Nafarroako Gobernuaren kudeaketa ere.

Arazoi horiek guztiak direla eta, aurrekontu-proiektuak ez du gutxieneko bermerik ziurtatu ahal izateko behar bezala esleitzen direla Nafarroako Gobernuak eskura dituen funts publikoak Aurrekontu Orokorrek helburu egokiak izan ditzaten, Nafarroako foru-komunitateak dituen erronka eta helburretatik zein aldenduta dauden kontuan izanda.

Hori guztia dela-eta, UPN talde parlamentarioak osoko zuzenketa hau aurkezten dio 2026ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen proiektuari.

## 2. ZUZENKETA

### TALDE MISTOAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen proiektuari aurkeztua.

Aurten ere proiektu honek erakusten du PSN, EH Bildu, Geroa Bai eta Contigo-Zurekin talde parlamentarioen sostengua duen Nafarroako Gobernu honek ez duela inongo interesik ekonomia lehiakor

eta oparoa sustatzeko, eta berresten du halabeharrezko gaitasuna duela zergadunen dirua modu ez eraginkorrean kudeatzeko, gobernu-bazkideei eta babesle nagusi duen eta bere baldintzak inposatzen dituen EH Bilduri kasu eginez. Gogoan izan ezazue esan zutela uzta egitera zetozela eta, bestela, buruxkak biltzera. Zaharra berri, atsedetik gabe esaten dugu.

Nafarroako aurrekontuek zerbitzu publiko eraginkorrak eta dinamizazio ekonomikoa bermatzeko balio beharko lukete, eta, aldi berean, etorkizun ekonomiko eta industrial iraunkorra eta jasangarria bermatzeko. Ez dira erazketako eta diru-bilketako tresna gero eta aktiboagoa bakarrik.

Diru publikoa herritarrengandik dator, erazketa-ko fiskalitate batetik, berriro ere erazlea, harraparia eta pelagikoa dela erakutsi digun fiskalitate batetik. Izan ere, diru publikoa ez da sortzen ezin agortuzko putzu magiko batetik. Diru-sarrerak Nafarroako familien eta enpresen poltsikoetatik datoz, haiek sortzen duten ekonomia errealetik. Herritar horiek espero dute beren lanetik ateratako baliabideak zehurtiaz, eraginkortasunez eta efizientziaz kudeatzea eta hazkunde ekonomikoa, zerbitzuak eta ongizatea sustatzeko erabiltzea. Aurrekontu hauek berriz ere erakutsi dute Nafarroak infertu fiskal bat izaten jarraituko duela; are gehiago, hori posible bada.

Beste behin ere, aurrekontu-proiektu honetan Nafarroaren historiako gastu publiko handiena aurkitzen dugu, 6.741,5 milioi euro, % 4,8ko hazkundearekin 2025eko aurrekontuen aldean, esaterako, aldera dezagun 2014ko aurrekontuen 3.800 milioiekin, gutxi batzuen interesak asebetetzeko partidek hazkunde neurrigabea dutela, eta inolako ahaleginik egiten ez denean beharrezkoa ez den gastu publikoa kimatzeko. Nafarroaren historiako gastu publiko handiena da, eta izaten ahal diren zerbitzu okerrenak jasotzen ditugu.

Aurrekontu honek burokrasia hedatzeari ematen dio lehentasuna, hura soildu beharrean, eta zergapetuekiko erabateko mespretxua adierazten du horrek. Bikoiztasunak desagerrarazi eta baliabideak optimizatu ordez, Administrazioaren aparatua etengabe handitzen ari da.

Dirulaguntzetara eta sorospenetara bideratutako partidak murrizteko zantzurik ez dago; aldiz, zentzugabeki hazten dira. Diruz laguntzeko apustua egiten da, pizgarriak eman eta inbertsioak egin beharrean. Ez da ingurune egokia sortzen ari ekintzailetzarako, ez eta inbertsioen garapenerako ere, gainerako autonomia-komunitateak jada egiten ari diren moduan.

Azpiegituri dagokionez, iraingarria da Nafarroako Gobernuak Nafarroako ubidea eta AHTa ain-

tzat hartu gabe jarraitzea. Nafarroako ubidea eta Nafarroako eskualde zabalak ureztalur bihurtzea ezinbestekoa da Nafarroako nekazaritza-sektorerako, eta, ubidearen bigarren fasea gauzatu ezean, Nafarroa aurrerabidetik urrundu eginen da eta enplegu- eta aberastasun-aukerak galduko ditu.

AHTari dagokionez, Gobernuak, EH Bilduren nahiei men eginez, tematuta dago Nafarroa basamortu ekonomiko eta enpresarial bilaka dadin, hala nahi dute eta; horregatik jarraitzen da ezarian-ezarian Etxabakoitzeko geltokiaren gaiarekin edo Sakanan barreneko loturarekin.

Gastu soziala handia da; ez da eraginkorra, ordea. Diru gehiago zerbitzu okerragoak izateko: hala erakusten da beste urte batez bolumenak ez duela beti eraginkortasuna ekartzen. Osasungintza da adibide argia: alor horretara bideratutako aurrekontua izugarria bada ere, osasun-zerbitzuak okertzen ari dira urtetik urtera, eta herritarrek gero eta zailagoa dute arreta mediko egokia eta kalitatezkoa jasotzea. Nafarroak ongi funtzionatzen duen eta eskuragarria den osasun-zerbitzua merezi du.

Babes sozialeko zerbitzu eta prestazio publikoetan inbertitzeak esan nahi du pertsonen bizimodu hobetzeko emaitza antzemangarriak lortzea, eta ez gastatze hutsagatik gastatzea. Ohitura bihurtu dute aurrekontuetan funts gehiago jartzea trukean gutxiago jasotzeko.

Halaber, aurrekontuak joera kezkgarria erakusten du, euskararen sustapenean gastu antzua egiten baita, hizkuntza hori oso urrun dagoenean nafar gehienen ohiko hizkuntza izatetik, datuek adierazten duten moduan. Baliabideak osasungintzara, kalitatezko hezkuntzara, azpiegiturak egiteko inbertsioetara eta horien moduko premiazko beharrezanetara bideratu ordez, diru publikoa kultur manipulazioko kanpaina baterako erabiltzen da, non euskara aukera ez baina inposizio gisa aurkezten baita. Hori, beren egunerokoan euskara garrantzitsutzat ez duten herritarrenganako errespetu falta izateaz gain, burugabekeria ekonomiko ere bada. Nafarroak ez du hizkuntzagatik edo auzi identitarioengatik banatua izateko beharrik.

Aurrekontu hau diru-xahuketaren politikari eta zerbitzu okerragoak emateko zerga-politika predatzailearen sostenguari eginiko monumentu gorena da. Egunero lan egiten duten eta aurrera doan Nafarroa ikusi nahi duten herritarren ahaleginari iseka egitea da.

Gobernu honek murriztu egin behar du eman-korra ez den gastua, gastu burokratikoak, bai eta beharrezkoak ez diren dirulaguntzak ere, eta utzi

behar dio Nafarroa familiek eta enpresek finantzatutako GKE bat balitz bezala tratatzeari eta bere interes politiko eta identitarioetarako mugarik gabe erabiltzeari.

Nafarroa herritar askez osatuta dago, eta horiek ekonomia miresgarria, administrazio efizientea eta egiazko aurrerabidezko etorkizuna merezi dute. Bai eta, jakina, nafarrez kezkatzen den gobernu bat ere, eta ez bere interes gezurrezkoek, demokrazia zer den ez dakiten –eta axola ez zaien– alderdien menpe egotera eramaten baitute.

Aurten ere, zaharrak berri ez, iaz baino askoz okerrago baizik.

### 3. ZUZENKETA

#### NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen proiektuari aurkeztua.

Aurten ere, Nafarroako gizartearen benetako beharrak islatzen ez dituzten aurrekontuen aurrean gaude.

Etorkizunari baikortasunez eta ilusioz begiratzeko, ezinbestekoa da Nafarroako Parlamentuak urtero onartzen duen legerik garrantzitsuenak aintzat har ditzala egungo eskaerak eta etorkizuneko erronkak.

Aurrekontu hedakorrek izanda ere eta gastua handitu egiten den arren, deitoratzen dugu aurrekontu-gorakada horrek ez ekartzea hobekuntzarik gure komunitatearen garapenerako, ezta Nafarroako herritarren ongizaterako ere.

Datorren 2026rako aurrekontuek islatu beharko lukete Gobernuaren borondatea Nafarroak aurrean dituen erronka handiei aurre egiteko: osasunaren egoera, etxebizitzaren krisia, pobrezia hazkundera, azpiegiturretan dauden gabeziak, hezkuntza, enpresen ihesa edo langile eta autonomoen egoera.

Halaz ere, beste behin ere, aurrekontu kontinista batzuekin egiten dugu tupust, gure komunitateak gaur egun jada dituen gabeziak areagotu eta haren hazkundera eta Nafarroako herritarren ongizatea mugatzen dutenak.

Lehiakortasun Fiskalaren Indize Autonomikoan zerga-presio handiena duten komunitateen artean kokatu da berriro Nafarroa. Zehazki, 14. postuan dago 19ren artean, eta indize horretan atzerakada handiena jasan duen eskualdea da 2017tik 2025era bitartean zazpi maila galdu ondotik.

Askatasunaren Aurrerapenerako Fundazioak eta Tax Foundationek egindako ikerketak bost zerga handirekin zerikusia duten aldagaiak aztertzen ditu: errenta, ondarea, oinordetza eta dohaintzak, ondare-eskualdaketak eta egintza juridiko dokumentatuak, baita zerga autonomiko propioak ere. Analiariak erakusten du lotura estua dagoela zerga-politikako ereduak eta eredu horiek inbertsioak, talentua eta jarduera ekonomikoa erakartzeko duten zuzeneko eraginaren artean; eta Nafarroako foru-komunitatearen kasuan biziki negatiboa da hori.

Nafarroako Gobernuak erreforma sakonik egin ez duelako, foru-komunitatearen eta Espainia osoaren arteko desabantailak areagotzen ari dira.

Lehiakortasun-galera horrek bete-betean eragiten dio gure industria-sareari; izan ere, % 6,2 gutxitu da ekoizpena urtetik urterako aldaketan, Nafarroako Industria Ekoizpenaren Indize Orokorren arabera. Horrek esan nahi du gure komunitatearen hazkundera zazpi puntu beherago dagoela Estatuko batezbestekoaren aldean.

Eta egoera horretatik langileak eta enpleguak erarortzen dira. 2024an, gure komunitatean, 15.300 industria-langilek izan dute aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak: bostetik batek. Nafarroa da lehena Estatuko rankingean, kaltetutako industria-langileen ehunekoari dagokionez.

Industriaren egoerak ez du baikortasunik iragartzen. Enpresa garrantzitsuak itxi dira eta beste batzuek krisialdi larriak bizi dituzte; eta ez da ikusten Nafarroako Gobernuaren lidergorik.

Besteak beste Sunsundegui, BSH, Siemens Gamesa, Arcelor Mittal, Grupo Antolín, Tenerías Omega, Tuterako Nano Automotive, Karey Solano, Saint-Gobain, Ribertrans, Mecacontrol eta SKF enpresen itxierak edo krisiak 1.708 kaleratze dakartzate.

Zoritxarrez eta egoera hori izanik ere, industria-ataleko aurrekontuek ez dituzte aintzat hartzen sektore horren beharizanak, eta Gobernuaren politikek eta geldotasunak okerragotu egiten du haren egoera.

Ekintza politikorik eza dela eta, lehiakortasuna galtzen ari gara pixkanaka-pixkanaka. 2015ean, Nafarroako langabezia-tasa Estatuko batezbestekoa baino hamar puntu hobeago zen; gaur egun, hiru puntu baino ez ditu haren gainetik. Erregistratutako langabezia jaitsi da, bai, baina Espainiako gainerako lekuetan baino gutxiago.

Nafarroako langabeziak emakume aurpegia edukitzen jarraitzen du: langabetu guztien % 62 dira emakumeak. 55 urtetik gorakoak langabeen

% 30 dira. Baina lan bila urtebete baino gehiago daramaten 12.000 pertsona baino gehiago horiek (% 41,9) dira enplegu-politiken porrota benetan islatzen duena.

Eta norberaren konturako enpleguaz ari bagara, autonomoen egoera ez da hobeago. Duela aste batzuk, Nafarroako Langile Autonomoen Elkarteak txosten bat aurkeztu zuen, gure komunitatean lan autonomoaren atzerakada agerian uzten duena.

Lau urteren buruan 1.043 langile autonomo gutxiago dira, eta, aldi berean, Espainian 95.000 gehiago dira. Aipatu elkartearen azterlanak erakusten du, gainera, autonomoak gero eta sektore zahartuagoa direla: 55 urtetik gorakoak areagotzen ari dira, eta 40 urtetik beherakoak gutxitzen.

Espainiako unibertsitate aurreko gazteen jarreari eta joerei buruzko Young Business Talents IX. txostenaren arabera, gazte nafarrak dira Espainia osoko bokazio ekintzaile gutxien dutenak. Horixe da Nafarroako Gobernuaren babesik ezaren emaitza, berriro ere, beste urte batez, agerian geratzen dena Parlamentuari helarazitako aurrekontuetan.

Egoera horri buelta emateko, beharrezkoa da sektoreari laguntzea, zerga-kargak murriztea, ekintzailetza bultzatzea, enpresak sendotzen laguntzea, belaunaldi-erleborako programa eraginkorrak abian jartzea, administrazio-prozesuak sinplifikatzea eta prebentzio-planak eta aukeraberdintasuna sustatzea.

Zerga-politika erakargarria behar dugu, enplegua sustatu eta proiektuak sendotuko dituen eta gure komunitatean ekiten dutenei lagunduko diona.

Gobernuak beharrezkotzat jotzen du presio fiskal handia ongizate-estatuari eusteko. Hala ere, osasungintza- eta gizarte-arloan urteak daramatzagu gabeziak pairatzen, eta horrek erakusten du gastu handiagoak ez duela esan nahi kudeaketa eraginkorra.

Nafarroako Osasun Zerbitzuan itxaron-zerrendak apur bat hobetu dira azken hilabeteetan, baina itxaron-zerrendan 60.000 pertsona baino gehiago egoteak funtzionatzen ez duten osasun-sistema eta -kudeaketa islatzen ditu. Ebakuntza kirurgikoetarako itxaron-zerrendek okerrera egiten jarraitzen dute, eta espezialitate batzuetan –Traumatologian edo Dermatologian, demagun– 154 eta 178 egun itxaron behar da, hurrenez hurren, lehen kontsulta lortzeko.

Lehen mailako arreta gainezka dago; mediku eta pediatren gabezia larria da, batez ere landa-eremuetan, non, gainera, larrialdietako arreta pixkanaka desagertzen ari baita.

Nafarroako Gobernuak 2026rako aurkeztu dituen aurrekontuetan ikusten dugu aurrekontuaren % 23,16 dela Osasunerako –2025ean, aldiz, % 23,5 zen–, eta ez dela inbertsiorik egiten zerbitzuaren kalitatea hobetzeko lehentasunezko azpiegitura eta instalazioetan.

Hezkuntzari dagokionez, Nafarroako Gobernuak kezkatuago jarraitzen du eredu ideologiko jakin batzuk zabaltzen, hezkuntza unibertsala, kalitatezkoa eta aukera berdintasunezkoa bermatzen baino. PISA 2022 txostenaren azken datuek agerian uzten dute azken urte hauetan aplikatu diren politika sektarioen porrota: Nafarroa da 2012 eta 2022 artean Matematikan gehien atzera egin duen komunitatea, Zientzietan okerrera egin dutenetan bigarrena, eta hirugarrena Irakurketan. Joera horrek asaldatu egin beharko luke Nafarroa ezagutzaren eta hezkuntza-bikaintasunaren burutzan kokatu nahi duen edozein gobernu.

Era berean, egiaztatzen dugu 0-3 urteko zikloaren doakotasuna ezarri ondotik ziklo horrek benetan unibertsala izan gabe jarraitzen duela. Familia askok bi aldiz ordaindu behar izaten dute zerbitzu berberagatik: lehendabizi, beren zergen bidez, haur-eskola publikoak finantzatzeko; eta, gero, hilero-hilero, eskola pribatu baten kuotak ordainduz, plaza publiko bat eskuratu ezin izan dutelako. Aurrekontu hauetan ez da benetako ahaleginik agertzen plaza berriak hitzartzeko, ezta haur guztien sarbidea bermatuko duten beharrezko azpiegiturak hedatzeko ere.

Ikastetxea aukeratu ahal izateko askatasuna funtsezko printzipioa da, eta gurasoek erabaki behar dute beren seme-alabek non ikastea nahi duten. Gaur egun, eskubide hori ez da bermatzen, eta Nafarroako Gobernuak bultzatutako hezkuntza-eredua askatasun hori mugatzen ari da, indartu beharrean.

Egoera sozialari dagokionez, datuak asaldagarriak dira, Pobreziaren Egoerari buruzko XV. txostenak adierazten duenez. Nafarroa da oraintxe bertan 2015etik hona pobrezia gehien hazi den autonomia-komunitatea: % 13,9ko AROPE tasatik % 18,3kora joan gara 2024an, 4,4 puntuko gorakadarekin; Espainia osoan, aldiz, kontrakoa da joera.

Nafarroako Gobernuaren politika soziala huts egiten ari den adierazle argia da hori: koordinazioak huts egiten du, ebaluazioak huts egiten du eta lidergoak huts egiten du. Zeharkako estrategia bat falta da, pobreziaren alderdi guztiei helduko diena: enplegua, etxebizitza, hezkuntza, osasuna eta haurrak.

Izan ere, langabezia jaitsi arren, lan-merkatuaren dualtasuna hazten ari da. Gero eta jende gehiagok egiten du lan, baina ez da pobreziatik ateratzen. Enpleguak jada ez du bermatzen bizi-modu duina, eta desberdintasuna hazten ari den seinale garbia da hori.

Eta hurrez ari bagara, datua izugarria da: Nafarroaren haurren pobrezia-tasa % 30,5ekoa da, eta haurren AROPE tasa % 35,3koa, EAPNren XV. txostenaren arabera. Espainiako iparraldeko komunitateen artean altuena da, eta Euskal Autonomia Erkidegokoa baino 15 puntu gorago dago.

Horrez gain, 2015etik haurren pobrezia gehien hazi den komunitatea Nafarroa dela dio txostenak, % 31,7ko gorakadarekin. Nazioko batezbestekoa baino pobrezia-tasa handiagoak dituzte mendeko adingabeak dituzten familiek, batez ere guraso bakarrek familiek.

Eta are gehiago: Nafarroan haurren pobrezia-egoeran dauden familiek beren diru-sarreraren % 50 baino gehiago bideratzen dute etxebizitza-gastura, eta horrek larriagotu egiten du bazterketa.

Datu horrek agerian uzten du etxebizitzaren arloko politikek funtsezko ardatza izan beharko luketela gobernu horrentzat. Baina alokairuaren arazoa konpontzetik urrun, politika interbenzionistak egikaritzen ari da Gobernuak, eta Nafarroako etxebizitzaren eskaintza % 9,6 murriztu da, Alokairuaren Behatokiaren arabera.

Premia larrieneko ondasuna da etxebizitza, beste eskubide batzuk gauzatu ahal izateko ezinbestekoa, eta lotura zuzen-zuzena du pertsonen eta haien familien bizi-kalitatearekin. Halaber, funtsezkoa da gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitu eta gainditzeko. Etxerik gabe, gazteak ezin dira emantzipatu, familiak ezin dira hazi eta pertsonak mugatuta dituzte garapen pertsonalerako aukerak.

Tentsio handiko eremuak mugarrizteak, Gobernuak etxebizitzaren arloan aurrera eraman duen politika garrantzitsu bakarrak, murriztu egin du alokairuan eskuragarri zegoen eskaintza eta prezio bizia eragiten ari da merkatuan: eskaria hazten ari da, eskaintza murriztu egin da eta prezioak garestitu egin dira, eta are gehiago zailtzen du bizileku bat eskuratzea.

Erosketa-prezioak ere izugarri garestitu dira, eta fiskalitatearen edo gobernuaren beraren bidez bidez erosketa sustatzeko politikarik ez dagoenez, aukera hori ia ezinezko bihurtzen zaie gehienei.

Beharrezkoa da neurriak ezartzea alokairurako pizgarriak emateko, etxebizitzaren eraikuntza sustatzeko, lankidetzaren publiko-pribatua bultzatzeko eta pizgarri fiskalak ezartzeko, bereziki gazteei eta sektore zaurgarrienei zuzenduak, etxebizitzaren alokatu edo erosi dezaten.

Bestalde, Nafarroak bere azpiegituren garapen irmoa behar du Espainiako eta Europako beste eskualde batzuekin lehiatu ahal izateko, baita geure komunitatearen garapen ekonomiko eta soziala bultzatzeko ere.

Abiadura handiko trenak atzerapenak metatzen jarraitzen du, eta horrek arriskuan jartzen du Nafarroa Europako korridoreetan integratzea. A-15 eta A-21 autobiek bikoiztu gabe jarraitzen dute zati garrantzitsuetan, eta horrek eragina du garraioaren segurtasunean eta efizientzian. Nafarroako ubideak gelditu jarraitzen du, Gobernuak bigarren fasea lizitzatzeko iragarpen ugari egin dituen arren. Eta Gobernuak garatu duen tamaina handiko obra bakarra, Belateko tunelen bikoizketa, orbanduta dago Madrileraino iritsi den ustelkeria-kasu baten ondorioz.

Azaldutako guztiagatik, aurrekontu hauek, herritarren benetako arazoei heldu eta etorkizuneko Nafarroaren alde lan egin beharrean, bakoitzak bere proiektuei eusteko elkarren beharra duten alderdi politikoen neurrira eginda daude, komunitatearen benetako beharretatik urrun.

Euskara eta beste arlo batzuk gainfinantzatzeko dira eta elkarte edo udal kutunei zuzendutako partida nominalak abusuz erabiltzen dira; eta Nafarroako Gobernuak boterean irauteko egin behar dituen lagapenen erakusgarri argia da hori.

Alde batera utzi dira dokumentu honetan azaldutako egiturazko arazoak, eta aurrekontu-proiektu hau egiten eta babesten duten taldeen helburu alderdikoietan jarri da arreta.

Alderdi politiko bakoitzak bere prezioa jarri dio kontu horiek onesteari; eta urtez urte erosteko ahalmena galtzen duten Nafarroako zergapetu guztien poltsikotik ordaintzen da prezioa, Gobernuak dirua helburu elektoralistekin birbanatzen duen bitartean.

---

**B saila:**  
**FORU-LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **11-25/PRO-00016. Foru-lege proposamena, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duena**

### **AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 149. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak. Foru-lege proposamen hori 2025eko urriaren 7ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **1. ZUZENKETA**

#### **EH BILDU NAFARROA**

#### **TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Gehitzeko zuzenketa, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzeko foru-lege proposamenaren artikulua bakarrari zazpigarrena bis apartatu berria eranstekoa.

Proposatzen da zazpigarrena bis apartatu berria eranstea artikulua bakarrari. Azken horrek 10/2010 Foru Legearen 42. bis artikulua aldatzen du. Asmoa da 2. puntuan "g" apartatua eranstea:

"g) Nahiz eta etxebizitza huts deklaratu ahalko direnak Nafarroako Foru Komunitatearen esparru geografikoan kokatuta daudenak bakarrik izan, titularrek guztira dauzkaten etxebizitzaren kopurua zehazte aldera aintzat hartuko dira titularrek Espainiako Estatuaren lurralde osoan dauzkaten etxebizitza guztiak, zein ere den haien titulartasunaren gaineko portzentajea".

### **2. ZUZENKETA**

#### **EH BILDU NAFARROA**

#### **TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Gehitzeko zuzenketa, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzeko foru-lege proposamenaren artikulua bakarrari zazpigarrena ter apartatu berria eranstekoa.

Proposatzen da zazpigarrena ter apartatu berria eranstea artikulua bakarrari. Azken horrek maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeari artikulua berri bat gehitzen dio. Asmoa da V. BIS Tituluaren III. Kapitulua barrenean 42. octies zenbakia eranstea:

"42. octies. Etxebizitza hutsak errentan emanaraztea.

1. Zilegi izanen da errentan emanaraztea etxebizitza hutsaren deklarazioa irmo bilakatu eta biharamunetik kontatzen hasita urtebetez hutsik iraun duten etxebizitza hutsak, baldin eta Etxebizitza Hutsen Erregistroan sartuta badaude. Etxebizitza horiek Nasuvinsaren Alokairu Poltsan edo Nafarroako Gobernuaren nahiz haren ente instrumentalen menpe dauden antzeko programa indardunetan sartu ahalko dira.

2. Errentan emanarazteari buruzko erabakia hartu ahalko du Nafarroako Gobernuan etxebizitza-alorraren gaineko eskumena duen departamentuko organo eskudunak. Horretarako, frogatu beharko du etxebizitza dagoen lurraldean badagoela etxebizitza-eskaria eta -premia.

3. Entzutea eman beharko zaie emanarazte horrek ukitzen dituen pertsona fisiko edo juridiko guztiei. Entzute-ematearen tramitea egin beharko da oraindik ez denean erabakirik hartu, deklaratorik ezen, bermatu eginen bada etxebizitza

huts deklaratu den horren funtzio soziala, neurri hori hartu beharra dagoela.

4. Eginen diren lehenbiziko urratsak izanen dira erregistro publikoetan etxebizitza hutsaren jabe gisa edo etxebizitzaren gaineko erabilera-eskubidedun gisa agertzen direnekikoak.

5. Duten funtzio soziala betetzen dela bermatze aldera etxebizitza hutsak errentan emanarazteko beharra dagoela deklaratzeko duen erabakiak jarraian adierazten diren zertzeladak jaso beharko ditu behar adinako titulutzat hartua izateko. Organo eskudunak:

Frogatuko du ezen errentan emanarazten diren etxebizitza huts hala deklaratuak gutxienez urtebete ematen dutela hutsik deklarazioa irimo bilakatu eta biharamunetik; Etxebizitza Hutsen Erregistroan sartuta daudela, eta etxebizitza-eskaria eta -premia dagoen eremuetan kokatuta daudela.

Etxebizitza deskribatuko du eta alokairuko etxebizitzaren mantentze-baldintzak zehaztuko, bai eta errentamenduaren iraupen-epea ere, zeina ez baita luzeagoa izanen 7 urte eta 6 hilabete baino.

Hamabost eguneko epea emanen die errentan emanarazteak ukituriko pertsona fisikoei eta juridikoei.

6. Bidezkotzat jotzen da etxebizitza hutsak erabiltzeko eskubidea aldi baterako desjabetzea errentan emanaraztearen bidez, oinarri harturik jabetzaren funtzio sozialaren urraketan, zeina jadanik aurreikusita baitago 8/2004 Foru Legean, bai eta foru lege honetan ere.

7. Errentan emanaraztearen prozedura bukatu denean, etxebizitza Nasuvinsaren Alokairu Poltsaren programan nahiz indarra duen antzeko beste batean sartuko dute etxebizitza-alorreko eskumena duen departamentuak edo horren ente instrumentalek; eta horretarako ezarritako prozedurari jarraituz esleitu da”.

### 3. ZUZENKETA

#### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarreko zortzigarren apartatua aldatzeko zuzenketa.

Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzeko foru-lege proposamenaren artikulu bakarrari zortzigarren apartatua aldatzea proposatzen da. Hona testua:

Zortzi. Hamabosgarren xedapen iragankorreko 6. Apartatuaren a) letra aldatzen da:

“a) Xedea dutenean eraikinaren ingurutzaila termikoa birgaitzea irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuan xedatzen denari jarraituz, zeinaren bidez arautzen baitira etxebizitza-arloko jarduketa babesgarriak, dirulaguntzaren portzentajea izanen da diruz laguntzeko moduko aurrekontuaren % 65ekoa, gehieneko dirulaguntza honako biderkadura hau izanik: espediente horretako etxebizitza-kopurua bider 12.500 euro, edo bider 14.000 euro, esku-hartze globaleko proiektuen abaroan sustaturiko espedienteen kasuan”.

Zioa: Gaur egungo idazketan ezarrita dagoen % 50eko mugarekin, etxebizitza ugarik ezin dute dirulaguntza eskuratu.

### 4. ZUZENKETA

#### NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Artikulu bakarria aldatzeko zuzenketa, hamabosgarren xedapen iragankorraren aldaketa jasotzen duen apartatu berri bat sartzeko.

Apartatu berri bat gehitzea proposatzen da, hamahirugarrena, hamabosgarren xedapen iragankorra aldatzeko. Hona testua:

Hamahiru. Hamabosgarren xedapen gehigarria aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“Hamabosgarren xedapen gehigarria. Errentamendu-kontratuaren esleipena eta berritzea.

Babes ofizialeko etxebizitzaren eta Alokairuen Poltsari atxikitako etxebizitzaren errentamendu-kontratuak urtero esleitzean eta berritzean, kontuan hartuko dira, dirulaguntza bat eskuratzeko, aurreko urteko zerga-aitorpenetik heldutako datuak.

Hala ere, onuradunen egoera ekonomikoa aldatu eta aurreko urteko errenta aitopenean deklaratu-tako diru-sarrerak gutxienez % 20 murrizten badira, kontratua berritzeko eskabidean onuradunek eskatu ahalko dute une horretako egiazko diru-sarrerak aintzat har daitezela”.

Zioa: Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen hamabosgarren xedapen gehigarriaren jatorrizko testua –Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzeko abenduaren 24ko 27/2014 Foru Legearen bidez sartu zen– honako hau zen: “Babes ofizialeko etxebizitzaren eta Alokairuen Poltsari atxikita-

ko etxebizitzaren errentamendu-kontratuak esleitzean eta berritzean, kontuan hartuko dira, dirulaguntza eskuratzeko, aurreko urteko zerga-aitorpenetik heldutako datuak, non eta, lan-egoeragatik edo egoera ekonomikoagatik, beren diru-sarrerak ez diren gutxitu urte horretan; hala bada, berritzea uneko datu errealei eginen zaie kasu, eta dirulaguntza eguneratzea eskatzen ahalko da edozein unetan, egoera ekonomiko hori edo lan-egoera hori aldatu denean”.

Nafarroan etxebizitza ordainerraza izateko eskubideari buruzko ekainaren 30eko 9/2025 Foru Legearen 1. 43. Artikuluaren testua aldatzea. Horren bidez aldatzen dira Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea eta uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena. Hona testu berria: “Babes ofizialeko etxebizitzaren eta Alokairuen Poltsari atxikitako etxebizitzaren errentamendu-kontratuak esleitzean eta berritzean, kontuan hartuko dira, dirulaguntza eskuratzeko, aurreko urteko zerga-aitorpenetik heldutako datuak”.

Hau da, Nafarroan etxebizitza ordainerraza izateko eskubideari buruzko ekainaren 30eko 9/2025 Foru Legeak indarra hartzean ezabatu egin zen edozein unetan dirulaguntzaren eguneratzea eskatzeko aukera, onuradunen egoera ekonomikoa edo lan-egoeran aldaketak izanda ere. Hori desabantailatzen jotzen da onuradunentzat; hori dela eta, zuzenketa honen bidez eskatzen da kasu horietan berrikusteko aukera gaitzea.

Edonola ere, aldaketa honekin konpondu nahi dira salbuespen horren aplikazioa oztokatzen zuten eta 9/2025 Foru Legean salbuespena kentzera eraman zuten arazo teknikoak. Batetik, muga bat ezartzen da, justifikatzen duena diru-sarrearen aldea behar bezain esanguratsua dela gainerako herritarrei aplikatzen zaien irizpide orokorraren salbuespena aplikatu ahal izateko eta herritarren arteko tratatu desberdintasuna arazotzeko. Eta, bestetik, berrikuspen eskaerak bereizi gabe edo era jarraituan aurkez daitezten saihestea; hala, aldaketa hau espedienteen urteko berriztapenetan soilik eskatu ahal izatea da bilatzen dena.

## 5. ZUZENKETA

### EH BILDU NAFARROA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzeko foru-lege proposamenaren artikulua bakarrari hamalagarren apartatu berria eranstekoa.

Proposatzen da hamalagarren apartatu berria gehitzea artikulua bakarrari, zeinak, bere aldetik, proposatzen baitu hogeita hamalagarren xedapen gehigarri berria eranstea Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeari, honako testu honekin:

Hamalau. Xedapen gehigarri berri bat sortzen da, hogeita hamalagarrena, testu hau duena:

“Hogeita hamalagarren xedapen gehigarria. Araubide berria, despokatze-arriskuko egoerakotzat deklaratuak izan diren udalerrietako etxebizitzaren eraikitze-birgaikuntzako jarduketetarakoa.

Nafarroako administrazio publikoek, zeinek bere eskumenen esparruan, etxebizitzaren eraikitze-birgaikuntzako jarduketak sustatu eta bultzatuko dituzte, arreta berezia eskainirik despokatze-arriskuko egoerakotzat deklaratuak izan diren udalerriei.

Udalerririk horien premia bereziak direla-eta, etxebizitza-alarrean eskudun den departamentuko kontseilariak foru agindu bidez igo ahalko ditu kasuko araudian aipaturiko birgaitze-jarduketetarako dirulaguntzen zenbatekoak, xedatzen harturik lurraldeari populazioa atxikitzea.

Aurreko apartatuan xedatzen dena halaber aplikatu ahalko zaie despokatze-arriskuko egoerakotzat deklaraturiko udalerrietan egiten diren Eskuhartze Globaleko Proiektuetako jarduketetarako aurreikusten diren laguntzei”.

## 6. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa.

Proposatzen da 2. artikulua berri bat gehitzea. Horren bidez, 192. bis artikulua gehitzen zaio Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuari. Hona testua:

“192. bis artikulua. Lankidetzaren publiko-privatuaren araubidea lizentzia behar duten egintzetan eta erantzukizunpeko adierazpena.

1.- Entitate pribatuaren lankidetzaren hirigintza arloko administrazio-eginkizunetan

1. Udalek zilegi izanen dute hirigintzarako laguntzaile diren entitate pribatuarekin lankidetzan betetzea lege honen 190 eta 192. artikuluek aipatzen dituzten hirigintza-arloko eginkizunak.

2. Hirigintza arloko entitate pribatu laguntzaileen araubide juridikoa eta funtzionamendua kapitulu honetan ezarritakoa izanen da. Hala ere, bertan xedatzen denaren mugartearen barrenean, udalek zilegi izanen dute beren dermioan entitate laguntzaileei aplikatzekoa den araubide juridikoa garatzea. Hala, zehaztu ahalko dute lege honen 190. eta 192. artikuluetan aurreikusitako eginkizunetatik zeintzuk bete ditzaketan, bai eta haien esku-hartzearen norainokoa, haien lanak betetzeko jarraitu beharreko prozedura eta lege honetan ezarritakoa errespetaturik dauzkaten betebeharrak gehigarriak ere. Halaber, horiei buruzko zehapen-araubidea osatzen ahalko dute.

Era berean, udalek ezarriko dituzte entitate laguntzaileek kasuko udal-mugartean jasoko dituzten prezioen gutxieneko eta gehieneko zenbatekoak, eta, betiere, esku hartzen duten hirigintza-zerbitzuei dagokien udal tasa kenduko da.

2.- Hirigintza arloko entitate pribatu laguntzaileen kontzeptua eta eginkizunak

1. Hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzailetzat hartuko dira beren ardurapean jarduten duten eta lege honetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten pertsona juridikoak, behar bezala akreditaturik eta Nafarroako Foru Komunitateko hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileen Erregistroan inskribaturik badaude.

2. Hirigintza arloko entitate pribatu laguntzaileek izaera teknikoa eta berezko nortasun juridikoa izanen dute, eta hurrengo apartatuan jasotako eginkizunak betetzeko behar dituzten giza baliabideak eta baliabide materialak eta finantzarioak edukiko dituzte.

3.- Hirigintza arloko entitate pribatu laguntzaileek honako eginkizunak betetzen lagundu ahalko dute, hirigintzako erabilera edozein dela ere:

a) Hirigintzako lizentziak eta erantzukizuneko aitortpenak izapidetzeko prozeduretan egiaztatze, esku-hartze eta kontrol eginkizunak, herritarrak eskatuta, hirigintzako lizentzien eta erantzukizuneko

aitortpenen egiaztatze-aktak eta adostasun-ziurtagiriak jaulkita.

b) Egiaztatzea eta ikuskatzea zoruaren edo zorupearen erabilera diren ekintzak eta eraikuntza-ekintzak.

Hirigintza arloko entitate pribatu laguntzaileen araubide juridikoa.

1. Hirigintza arloko entitate pribatu laguntzaileek inpartzialtasunaz, konfidentzialtasunaz eta independentziaz jardunen dute, lehia askeko araubidean eta bateraezintasunen arloko xedapenak errespetatuta. Beren eginkizunak betetzean sortutako kalte eta galeren erantzule izanen dira.

2. Hirigintza arloko entitate pribatu laguntzaileek interesdunak edo udalak eskatuta jardunen dute, eta haien esku-hartzea ez da nahitaezkoa izanen. Era berean, Nafarroako Foru Komunitateak eta haren menpeko zuzenbide publikoko erakundeek eskatu ahalko dute entitate horiek jardun dezaten.

3. Hirigintza arloko entitate pribatu laguntzaileek ez dute agintari izaerarik izanen, eta haien jardunak ezin izanen du eragotzi administrazio publikoetako zerbitzu teknikoek berezkoa duten egiaztatze, ikuskatze eta kontrol eginkizuna.

4. Interesdunek beren borondatez erabili ahalgo dituzte entitate pribatu laguntzaileek emandako zerbitzuak, baina horiek ezin izanen du ekarri inolako aparteko tratamendurik udalaren aldetik.

5. Beren jardunean, entitate laguntzaileek egiaztapen-aktak, ziurtagiriak eta txostenak jaulki ahalko dituzte. Udalek administrazio-espeditari erantsiko dizkiote horiek, eta haien edukia bere eginen du edo, kasua bada, aurkako jarrera arrazoitua adieraziko du.

6. Edonola ere, udal zerbitzuek jaulkitako txostenak lehentasuna izanen dute entitate laguntzaileek beren jardunean jaulkitako dokumentazioarekiko.

7. Adostasun-ziurtagirien ondorioak udal zerbitzu teknikoek jaulkitakoen parekoak izanen dira.

4.- Foru Komunitateko hirigintza arloko entitate pribatu laguntzaileen Erregistroa.

1. Foru Komunitateko hirigintza arloko entitate pribatu laguntzaileen Erregistroa administrazio-erregistro bat da, izaera publikoa duena, eta lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloko departamentu eskudunaren menpe egonen da.

2. Lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloko eskumenak dituen Nafarroako Gobernuaren departamentuaren foru agindu batek

arautuko ditu hirigintza arloko entitate pribatu laguntzaileen Erregistroaren araubide juridikoa, bertan inskribatzeko gutxieneko datuak, inskribatzeko prozedura, inskripzioa etetearen eraginkortasuna eta hura deuseztatzea.

5.- Nafarroako Foru Komunitateko hirigintza arloko entitate pribatu laguntzaileen akreditazioa.

Nafarroako Foru Komunitateko hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileen Erregistroan inskribatuak izan ahal izateko, hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileek akreditazio bat eduki beharko dute, ENAC-Akreditazio Entitate Nazionalak jaulkitakoa, akreditaziorako erakunde nazionala den aldetik. Akreditazio hori UNE-EN ISO/IEC 17020 (A motako entitateak) araua edo hura ordeztzen duena beteta eman beharko da, eta honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Modu baliodunean eratuak izatea, aplikatzekoa den araudiari jarraikiz.

b) Erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatuta edukitzea, gutxienez 1.000.000 eurokoa, entitateak eta haren langileek entitate laguntzaile gisa diharduteneko jarduna estaliko duena. Zenbateko horrek ez du erantzukizuna mugatuko eta eguneratu ahalko da lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloko eskumenak dituen Nafarroako Gobernuaren departamentuaren foru agindu bidez.

c) Entitateak Nafarroako Foru Komunitatean betetzen dituen eginkizunen betetzeari une oro atxikita edukitzea honako ezaugarri hauek dituzten langileak:

1. Gutxienez arkitekto edo ingeniari bat, gutxienez hamar urteko lan-esperientzia frogatua duena honako eginkizun hauetako bakoitzean:

1.1. Eraikuntza-obretarako proiektuen idazketa, zuzendaritza eta interpretazioa.

1.2. Hirigintza-planeamenduko eta hirigintza-kudeaketarako tresnen idazketa, interpretazioa eta aplikazioa.

2. Gutxienez abokatu edo ingeniari bat, gutxienez hamar urteko lan-esperientzia egiaztatua duena honako eginkizun hauetako bakoitzean:

2.1. Aholkularitza juridikoa hirigintzako planeamendu, kudeaketa eta diziplinaren arloan.

2.2. Aholkularitza juridiko-teknikoa eraikuntza, eraikuntza eta urbanizazio-lanen arloan.

6.- Hirigintza arloko entitate pribatu laguntzaileen betebeharrak.

Hirigintza arloko entitate pribatu laguntzaileek betebeharrak hauek konplitu beharko dituzte:

a) Izen emateko bidea eman zuten baldintzak betetzea eta indarrean mantentzea, eta horien aldaketa oro baimena eman zuen organoari jakinaraztea.

b) Behar bezala betetzea egiaztatze, ikuskatze edo kontrol eginkizunak, jasotako akreditazio-ziurtagiriarekin bat.

c) Beren eginkizunetan jasotzen duten informazioaren konfidentzialtasuna bermatzea eta izaera pertsonaleko datuen babesaren arloan aplikatzekoa den araudia betetzea.

d) Egiaztatze, ikuskatze eta kontrol eginkizunak betetzearekin zerikusia duten jarduketak ez azpikontratatzeko, akreditazioan aurreikusitako moduan.

e) Egiaztatze-akten, ziurtagirien eta txostenen kopia ematea, bai eta administrazioek beren eginkizunak betetzean eskatzen dieten beste edozein informazio ere.

f) Prozedura berariazkoak edukitzea bezeroek beren jarduerengatik aurkeztutako erreklamazioak tratatzeko, eta horiekin zerikusia duen jarduketa ororen artxibo bat edukitzea.

g) Jarduketaren tarifak zehaztea eta urtero ezartzea beren eginkizunak betetzeagatik jaso beharreko prezioak. Prezio horiek Erregistroaren arduraren duen organoari jakinaraziko zaizkio indarrean egon diren urte naturala hasi baina bi hilabete lehenago gutxienez, hark argitara eman dira.

h) Zazpi urtez gordetzea izapidetutako espedienteak, bai eta jaulkitako egiaztatze aktak, ziurtagiriak eta txostenak ere.

i) Beren instalazioetan eta bulegoan sartzeko baimena ematea akreditazio-entitateari eta Nafarroako Foru Komunitateko langile eskudunei, bai eta, kasua bada, beren eginkizunak betetzen dituzten udaletakoei ere.

j) Dituzten egiaztatze, ikuskatze eta kontrol eginkizunei eta entitate pribatu laguntzaile gisa ematen dituzten zerbitzuei buruzko informazio zuzena ematea herritarrei oro har eta, bereziki, beren bezeroei. Zehazki, entitate laguntzaileek honako gai hauei buruzko informazioa emanen diete interesdunei, bakarka eman ere:

1. Kasuko jarduketari dagokion esku-hartze administratiboko bidea, kasuko bakoitzean jarraitu beharreko izapidetzea, eta legezko epeak.

2. Oro har aurkeztu beharreko dokumentazioa, bai eta aurreko egoeretan oinarritutako uziak justifikatzeko beharrezkoa den dokumentazio espezifikoa edota jarduera gauzatzeko edo nahi den hirigintza-jarduketa gauzatzeko eduki beharrekoa ere.

3. Bere jarduketa ezinezkoa egiten duen betekizun teknikorik ba ote dagoen, eta aplikatzekoa den arau-mugartea.

4. Lizentzia lortzea edo erantzukizunpeko adierazpena egitea eskatzen duten eragiketengatik eratorri ahal diren prezio, tasa eta zergak, bai eta ordaintzeko modua, unea eta zenbatekoa ere.

5. Kexak eta erreklamazioak aurkezteko prozedura.

6. Kasua bada, eskaeraren izapidetze-egoerari buruzko informazioa elektronikoki eskuratzea.

7. Aplikatzekoa zaien araudi sektorialak ezarritakoei edota udalek beren udal-mugarrean arautzen duten beste edozein gairi buruzkoa.

7.- Hirigintza arloko entitate pribatu laguntzaileen bateraezintasunak.

Hirigintza arloko entitate pribatu laguntzaileek eta haien zerbitzuko langileek bateraezintasunen arloan aplikatzekoak diren xedapenak errespetatu beharko dituzte.

Edonola ere, beren eginkizunak betetzean bateraezintasun-arrazoi hauek aplikatuko zaizkie, udaletako bakoitzak bere ordenantzetan jasota izan ditzakeenak ezertan galarazi gabe:

a) Ezin izanen dute hirigintza-jarduketaren proiektu-egile, ekoizle, zuzkitzaile, instalatzaile, hornitzaile, erosle, jabe, erabiltze, mantentzaile, aholkulari edo zuzendari izan, horiek gainean 190. eta 192. artikuluetan aurreikusitako eginkizunen bat baldin badute.

b) Ez dute azpiegiturarik, instalaziorik, antolamendu-egiturarik, langilerik, baliabiderik, ekiporik, publizitaterik edo informatika-sistemarik partekatuko aurreko apartatuan aipatzen diren jarduerak gauzatzen dituzten enpresekin.

c) Ezin izanen dute hirigintza-jarduketaren gaineko egiaztatze, ikuskatze eta kontrol eginkizunik bete, entitateko titularrak, bazkideak edo zuzendaritzako kideak jarduketaren titularren ahaideak –zuzeneko nahiz alboko lerrokoak izan, bigarren graduraino–, ezkontideak edo ezkontzaren antzeko bizikidetzaren harreman afektiboak dituzten pertsonak badira.

d) Ezin izanen dute ikuskatu jarduketa bat, aldezturik haren gaineko ziurtagiririk eman badute interesdunen batek eskatuta.

8.- Hirigintza arloko entitate pribatu laguntzaileen arau-hausteak.

1. Lege honetan araututako hirigintza arloko entitate pribatu laguntzaileei artikuluko honetan xedatutako arau-hausteei buruzko araubidea aplikatuko zaie.

2. Hirigintza arloko entitate pribatu laguntzaileen arau-hauste oso astunak izanen dira udalek beren ordenantzetan hala kalifikatutakoak eta, betiere, honako hauek:

a) Jarduerak eta eginkizunak gauzatzea aldezturik hirigintza arloko entitate pribatu laguntzaileen Erregistroan akreditatuta eta izen emanda egon gabe.

b) Lege honetan ezarritakoaren arabera egin ezin dituzten jarduerak eta eginkizunak gauzatzea.

c) Administrazio-organo eskudunaren ikuskarpen-jarduketak oztopatzea.

d) Gaitu gabe edo kualifikatu gabe dauden langile teknikarien bidez gauzatzea bere jarduera eta eginkizunak, lege honetan jasotako baldintzei dagokienez.

e) Gertaeren errealitatearekin bat ez datozen egiaztatze-akta, ziurtagiri eta txostenak doloz jaulkitzea.

f) Egiaztatze, ikuskatze eta kontrol eginkizunetara detektatzen dituzten hirigintza-arloko arau-hausteak udalari ez jakinaraztea.

g) Kalte konponezinak eragiten dituzten edo pertsonen segurtasunerako, ondasunentzako edo ingurumenerako hurbil-hurbileko arriskua dakarten arau-hauste astunak.

3. Hirigintza arloko entitate pribatu laguntzaileen arau-hauste astunak izanen dira udalek beren ordenantzetan hala kalifikatutakoak eta, betiere, honako hauek:

a) Datu faltsuak edo okerrak dituzten egiaztatze-akta, ziurtagiri eta txostenak zabarkeriaz jaulkitzea.

b) Egiaztatze, ikuskatze eta kontrol eginkizunak modu osatugabea edo emaitza oker edo justifikaziorik gabekoekin betetzea.

c) Lege honetan eskatzen den aseguru-polizaren zenbatekoa ez eguneratzea.

d) Beren eginkizunak betetzean inpartzialtasun-, konfidentzialtasun- eta independentzia-printzipioak edota aplikatzekoa zaien bateraezintasun-araubidea urratzea.

4. Hirigintza arloko entitate pribatu laguntzaileen arau-hauste arinak izanen dira udalek beren ordenantzetan hala kalifikatutakoak eta, betiere, kapitulu honetan ezarritakoaren aurkako egintza edo ez-egiteak, ezin badira arau-hauste astuntzat edo oso astuntzat hartu.

5. Udalek beren ordenantzetan tipifikaturiko arau-hausteak oso astun, astun edo arin gisa kalifikatuko dira, banaka nahiz batera, honako irizpide hauen arabera:

a) Pertsonen segurtasunerako, ondasunen-tzako edo ingurumenerako dakarten kaltearen larritasuna.

b) Entitate laguntzaileen zerbitzuen kalitatea murriztea, bai eta zerbitzuen erabiltzaileei ekarri ahal zaien babesgabetasuna, arreta-falta eta/edo desinformazioa ere.

c) Laguntzaile-jarduna gauzatzean udalari egin ahal dioten kaltea, bere jarduketan zuzentasun tekniko faltagatik eta/edo zuzentasun juridiko-prozedurazkoaren faltagatik.

d) Bere inpartzialtasunak, konfidentzialtasunak eta independentziak jasan dezaketen balizko eragina.

9.- Hirigintza arloko entitate pribatu laguntzaileen zehapenak.

1. Aurreko artikuluan ezarritako arau-hausteak egiteak honako zehapenak ezartzea:

a) Arau-hauste arinak 3.000 eta 30.000 euro bitarteko isunaz zehatuko dira.

b) Arau-hauste astunak 30.001 eta 100.000 euro bitarteko isunaz zehatuko dira.

Arau-hauste oso astunak 100.001 eta 500.000 euro bitarteko isunaz zehatuko dira.

Eragindako kaltea aintzat hartuta, arau-hauste horiek berekin ekarri ahalko dute, neurri osagarri gisa, entitatearen Erregistroko inskripzioa bertan behera uztea eta gehienez ere bi urteko epean berriro eskatu ezin izatea. Edonola ere, inskripzioa bertan behera utziko da bi arau-hauste oso astun edo gehiago eginez gero, administrazio bideko ebazpen irmo batek hala deklaratu duenean.

2. Udalek beren ordenantzetan tipifikaturiko arau-hausteen kasuan, aplikatu beharreko zehapenak artikuluko honen 1. apartatuan ezarritakoari

egokituko zaizkio, arau-haustearen kalifikazioaren arabera.

3. Zehapena arau-haustetzat joko diren egintzen larritasunaren araberakoa izanen da. Hala, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan, bana-ka edo batera:

a) Arau-hauslearen erruduntasun maila eta asmoa.

b) Arau-haustea egiten jarraitzea.

c) Eragindako kalteen izaera.

d) Arau-haustea berriz egina den, hau da, ea urtebetean eite bereko arau-hauste bat baino gehiago egin diren, administrazio bideko ebazpen irmo batek hala deklaratu duenean.

4. Arau-haustea egiteak inolaz ere ezin du onura ekonomikorik izan arau-hauslearentzat. Hori dela-eta, administrazioak, kasuan kasuko zehapena ezartzeaz gain, egindako arau-haustearen ondorioz jasotako onura konfiskatuko du edo zenbaterako baliokidearen ordainketa eskatuko du.

5. Era berean, artikuluko honen babesean ezarritako zehapenen zenbatekoa ehuneko 50 murriztuko da borondatezko epean ordaintzen badira eta epe berean arau-hausleak, bere erantzukizuna onartzeaz gain, idazki bidez adierazten badu ezarri zaion zehapenarekin ados dagoela eta, espresuki, uko egiten badio epe horretan administrazio bideko inpugnazio biderik erabiltzeari. Ondoren inpugnazio-egintzarik baliatzeak aipatu murrizketa galtzea ekarriko du.

10.- Zehapen-prozedura eta arau-hauste eta zehapenen preskripzioa.

1. Udalak izanen dira hirigintza arloko entitate pribatu laguntzaileek kasuko udal-mugartean eginitako arau-hausteengatik zehapen-prozedurak hasi eta izapidetzeko eskumena izanen duten organoak.

Erregistroaren kudeaketa esleitura duen lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloko Nafarroako Gobernu departamentu eskudunari jakinaraziko zaio zehapen-prozeduren hasiera, bai eta haien ebazpena eta administrazio bidean irmo bilakatzea.

2. Lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloko Nafarroako Gobernu departamentu eskudunak jakinen balu hirigintza arloko entitate laguntzaile batek lege honetan aurreikusitako arau-hausteetako bat izan daitekeen egintza edo ez egiteren bat egin duela, kasuko udalari jakinaraziko dio bidezkoak diren legezko neurriak har ditzan eta, kasua bada, dagokion zehapen-prozedura has dezan.

3. Alkateari dagokio bere udal-mugar-tean hasi eta izapidetutako zehapen-prozedurak ebatzea, geroago eskuordetu edo deskontzentratu ahal izatea galarazi gabe.

4. Lege honetan aurreikusitako zehapenak ezartzeko, zehapen-prozedura izapidetu beharko da, urriaren 1eko 39/2015 Legeari eta urriaren 1eko 40/2015 Legeari eta, kasua bada, udal ordenantzetan ezarritakoari jarraikiz.

5. Kapitulu honetan ezarritako arau-hauste eta zehapenak preskribatzeko epea hiru urtekoa izanen da arau-hauste oso astunen kasuan, bi urtekoa arau-hauste astunen kasuan eta sei hilabetekoa arinen kasuan.

Zioa: Erabateko premia du entitate horiek sortu eta arautzea, lizentziak eskuratzeko atzerapen onartezinak aintzat hartuta.

## 7. ZUZENKETA

### **NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

Hitzaurrea aldatzeko zuzenketa, elkarlaneko etxebizitzak arautzen dituen xedapenaren erreferentzia zuzentzeko.

Foru-lege proposamenaren hitzaurrea aldatzea proposatzen da. Hona testua:

#### **“HITZAURREA**

9/2025 Foru Legea, ekainaren 30ekoa, Nafarroan etxebizitza ordainerraza izateko eskubideari buruzkoa, zeinaren bidez aldatzen baitira Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea eta uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena, aldaketa-eragile itzela izan da Nafarroan etxebizitza babestuak esleitzeko eredu eta araubidearentzat, eta etxebizitza egoki eta ordainerraz bat eskuratzeari dagokionez munta handiko hobekuntzak ekarri ditu.

Hala ere, foru lege horrek indarra hartu ondoren, lausotasun tekniko batzuk aurkitu zaizkio, arauaren funtsezko edukia aldatzen ez badute ere

haren aplikazio bete-betea zaildu egiten dutenak, batez ere etxebizitza babestuak esleitzeko prozeduren izapidetzeari dagokionez.

Aldaketa honen asmoa da, horrenbestez, desdoitasun tekniko txiki horiek zuzentzea, eta halatan esleipen-sistema berriaren implementazio egokia erraztea, berme administratibo nahiz informatiko erabatekoarekin.

Bestalde, foru legearen hogeita seigarren xedapen gehigarria kentzen da, haren aplikazioak duen legezko zailtasunagatik; izan ere, haren edukia ez zaio behar bezala egokitzen Parlamentuaren legegintza-jardunari. Haren ordeztu, hogeita zazpigarren xedapen iragankorra sartzen da, zeinak lankidetzazko etxebizitza jasotzen baitu bizitoki-parkearen eskuraketa, erabilera eta kudeaketarako bide berri bezala, oinarritua elkarlanean, jabetza kolektiboan eta jabetza indibidualen araubidearen ordeztu erabilera-eskubidean. Aurreikuspen horren helburu nagusia da etxebizitza-modalitate horrek araubide bat izan dezala, jadanik badagoen araudi bat esleitzuz horri, zuzenbide-hutsunerik ez dadin egon harik eta modalitate horren garapen integrala eginen duen berariazko araudi bat onesten den arte.

Zioa: Foru-lege proposamenaren hitzaurreko akats bat zuzendu nahi da; izan ere, indarrean dagoen hogeita seigarren xedapen gehigarriaren aldaketa aipatzen da, eta hori ez da zuzena, egiazki xedapen hori kendu eta xedapen iragankor berri bat, hogeita zazpigarrena, sortzen baita.

Hogeita seigarren xedapen gehigarria kentzeko justifikazioa da praktikan ezinezkoa dela haren aplikazioa. Izan ere, bertan xedatzen da Parlamentuak erregelamendu bidez ezarritako dituela elkarlaneko etxebizitzak sustatu eta eraikitzeke legezko baldintzak, eta hori ez dator bat Parlamentuaren legegintza-jardunarekin, Parlamentuak foru legeak onesten baititu, ez erregelamenduak.

Haren ordeztu, xedapen iragankor berri bat sortzen da, hogeita zazpigarrena, elkarlaneko etxebizitzari buruzkoa. Horren bidez, behin-behineko araudi bat ezartzen da, araudi berariazko eta integral bat taxutu bitartean.

Kontuan hartuta bi arau-aldaketa horiek ez daukela behar bezala islatuta legearen hitzaurrean, bidezkoa da zuzentzea, testuak behar duen koherentzia izan dezan.

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**11-25/DEC-00048. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Haurren Eskubideen Mundu Egunaren ospakizunarekin**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2025eko azaroaren 17an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Haurren Eskubideen Mundu Egunaren ospakizunarekin, eta, horretarako, azaroaren 19an, 12:00etan, ekitaldi bat egingen du UNICEFekin batera Osoko Bilkuren aretoan.

2. Nafarroako Parlamentuak ezinbestekotzat jotzen du haur bakoitzak eskueran izan ditzan osasun- eta hezkuntza-zerbitzuak, ura eta sanea-

mendu egokia, eta indarkeriatik eta esplotaziotik babestuta bizi dadin.

3. Nafarroako Parlamentuak Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren printzipio gidariak babesten ditu: haurren interes gorena; bizitzarako eskubidea, bizi-iraupen eta garapenerakoa, parte hartzeko eskubidea eta diskriminatuak ez izatekoa”.

Iruñean, 2025eko azaroaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias